



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko apirilaren 30a

58. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

- 11-25/LEY-00002. Foru-lege proiektua, Taxiei buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-25/MOC-00064. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan erizain espezialisten plazak ezartzeko plan estrategiko bat taxutu dezan. Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkeztu du (4. or.).
- 11-25/MOC-00065. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Euskaraldia ekimenarekin. EH Bildu Nafarroa, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztu dute (5. or.).
- 11-25/MOC-00066. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berma dezan Lizarrako eta Tuterako eskualdeko ospitaleetan erradiologiako mediku espezialistak egonen direla egunero eta etengabe. Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkeztu du (7. or.).
- 11-25/MOC-00067. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen exekuzio eta bideragarritasun integrala berma dezan. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu du (8. or.).
- 11-25/MOC-00068. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita nekazaritzako elikagaien plan estrategikoa taxutu dezan nekazaritzako organizazioekin eta sektoreko beste eragileekin lankidetzan. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (9. or.).
- 11-25/MOC-00069. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Espainiako Gobernua premia dezan Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren 245. eta 269. artikulua aldatzea sustatzera, etxebizitzaren eta higiezinaren okupazio-kasuetako zigorrak gogortzeko. Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztu du (10. or.).
- 11-25/DEC-00015. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Ijitoen Herriaren Nazioarteko Egunarekin. Eledunen Batzarrak onetsi du (12. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- 11-25/PES-00170. Galdera, Kuo enpresaren lan-irregularitasunei buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (13. or.).
- 11-25/PES-00171. Galdera, tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonaldeetako zehapen-araubideari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (14. or.).
- 11-25/PES-00172. Galdera, Etxebizitza Kolaboratiboen Programari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (15. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-24/PECP-00001. Deialdia, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko ikus-entzunezko komunikazioko teknikaria izateko lanpostu bat, euskarako C1 hizkuntza-eskakizunarekin, funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa. Aldi baterako kontratazioetarako zerrenda (16. or.).
- 11-23/ELC-00003. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusirako eta Tokiko Kontseiluetarako izendatu beharreko kidea hautatzea (17. or.).
- 11-25/ELCR-00001. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseilurako aukeratu behar dituen bost kideak hautatzea (18. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-25/LEY-00002. Foru-lege proiektua, Taxiei buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legea aldatzen duena

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

2025eko apirilaren 28an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. 2025eko maiatzaren 12ko 12:00ak arte luzatzea Taxiei buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea. Foru-lege proiektua 2025eko apirilaren 8ko 45. NPAOn argitaratu zen.

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko apirilaren 28an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/MOC-00064. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan erizain espe-zialisten plazak ezartzeko plan estrategiko bat taxutu dezan

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko apirilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan erizain espezialisten plazak ezartzeko plan estrategiko bat taxutu dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osasun Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko apirilaren 28an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Kalitatezko osasun-arreta funtsezko zutabea da Nafarroako herritarren ongizaterako. Halatan, erizain espezialistek zeregin erabakigarria betetzen dute zainketa aurreratuak emateari eta osasun-emaizak hobetzeari dagokienez. Halere, gaur egun, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan profesional horientzako lanpostu-kopurua ez da aski gero eta ugariagoak diren asistentzia-

eskaerei erantzuteko eta arreta espezializatu optimoa bermatzeko.

Nafarroako Gobernuaren 2024ko Enplegu Publikoaren Eskaintza berriak diplomadun sanitarioentzako 80 plaza sortzea aurreikusi zuen; horietatik 67 erizaintza orokorrari zegozkion, eta bakarrik 4 erizaintza obstetrikoginekologikoari (emaginak), 1 osasun mentaleko erizaintzari eta 1 laneko erizaintzari. Banaketa horrek agerian uzten du Lehen Mailako Arreta bezalako arlo kritikoetan erizain espezialistak sartzearen aldeko apustua mugatua dela.

Nahitaezkoa da Osasun Departamentuak profesional horien garrantzia aitortzea eta neurri zehatzak hartzea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erizain espezialisten plaza kopurua handitzeko. Horri esker, arreta espezializatuagoa eta efizienteagoa izanen da, Nafarroako biztanleriaren egungo eta etorkizuneko beharrekin bat.

Gainera, erizain espezialistentzako plaza espezifikoa sortzeak asistentziaren kalitatea hobetzen laguntzeaz gain, talentua eta garapen profesionala O-NOZen barruan atxikitzen ere lagunduko luke. Ez dugu ahaztu behar orain dela urte asko erizainak hainbat arlotan espezializatzen direla Barneko Erizain Egoiliarren (BAEE) programen bidez, eta lan-merkatuan sartzten direnean, osasun-sistema publikoak bere espezializazioarekin bat datozen behar adina plaza eskaintzen ez dituelako errealitateari aurre egin behar diotela.

Egoera horrek paradoxa bat sortzen du: prestakuntzan inbertsioa egin arren, erizain espezialistek erizaintzako postu orokorrak onartu behar izaten dituzte, edo, kasu batzuetan, langabeziari aurre egin behar izaten diote. Laneko eta Ekonomia Sozialeko Ministerioaren datuen arabera, 2024an, espezialitatea zuten erizainek sinatutako kontratuen % 68 erizaintza orokorreko eginkizunak bete-

tzeko izan ziren; halatan, agerian geratu zen ez zirela haien konpetentzia espezifikoa aitortu eta aprobetxatu.

Erizain espezialistak behar beste ez erabil-tzeak talentua eta baliabideak galtzea dakar Nafarroako osasun-sistemarentzat, eta, gainera, eragin negatiboa du osasun-sistemak herritarrei eskaintzen dien laguntzaren kalitatean.

Nafarroako erizain espezialistaren plazak geldoki ezartzearen ondorioz, ez osasun-sistemak ez pazientek ez dituzte guztiz baliatzen profesional horiek eskuratu duten prestakuntza aurreratua.

Hori dela eta, erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak aitortza egiten dio espezializatutako erizainek Nafarroako osasun-sistema publikoari ematen dioten balio erantsiari.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du plan estrategiko bat garatu dezan Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan erizain espezialisten plazak ezartzeko heldu diren 5 urteetarako, zeinean ezarriko baita aldi horretan espezialitate bakoitzerako ezarri beharreko plaza kopurua.

Iruñean, 2025eko apirilaren 14an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-25/MOC-00065. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Euskaraldia ekimenarekin

EH BILDU NAFARROA, GEROA BAI ETA CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko apirilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Euskaraldia ekimenarekin.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko apirilaren 28an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Zioen azalpena

Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du euskararen sustapenarekiko bere konpromisoa, bertako kultur eta hizkuntz aberastasunaren funtsezko osagai den aldetik, Foru Komunitatearen gizarte-koheretza indartzen duena. Horrenbestez, aldeztu eta preziatu egiten ditu Euskaraldia bezalako ekimenak, zeinak sustatzen baitu euskara erabilia izan dadila egunerokotasunean, herritar-ak aktibatuz eta hizkuntz ohiturak aldatuz.

"Elkar mugituz egingo dugu" lelopean, Euskaraldiaren 2024-2025 edizioak euskaraz jakin badakiten baina erabili ohi ez duten pertsonen parte-hartze aktiboa bultzatzen du, eta haiei adre ematen die testuinguru gehiagotan hitz egin dezaten. Halaber sustatzen du euskaraz ulertu bai baina hitz egiten ausartzen ez direnek euskarazko komunikazioa jaso dezaten, haiengan hizkuntzaren eraginpekotasuna indartze aldera. Hori guztia giltzarri diren bi figuraren bitartez taxutzen da:

- Ahobizi: ahal den orotan euskaraz mintzatzeko konpromisoa hartzen duten pertsonak.

- Belarriprest: pertsona hauek dira gaztelaniaz erantzun ahal izan arren beraiei euskaraz hitz egitea nahi dutela adierazten dutenak.

Nafarroak euskarazko hiztunen komunitate kopurutsua dauka, bai eta euskaraz ulertzen duten pertsona asko ere. Euskararen egunerokotasuneko erabilera sustatzea giltzarria da haren normaliza-

zioan aurrerapausoak eman eta espazio publikoan duen presentzia indartzeko. Azken inkestek berretsi egiten dute Nafarroan zabaltzen ari dela euskalduntasuna. Nastat- Nafarroako Estatistika Institutuak 2024an argitaratu zituen 2022an eginiko ikerlanaren emaitzak. Euskaldunen proportzioa % 15,1ekoa da; euskaldun hartzailleena, % 11,6koa; eta ez-euskaldunena, % 73,3koa. Hogei udalerritan, euskaldunen proportzioa % 80 baino gehiagokoa da. Alabaina, euskara hizkuntza zaugarria denez (horrelaxe sailkatzen du Unescok), euskalduntasun hori ez da erabileran aise azaleratzen. Beraz, garrantzitsua da komunikazio-estrategia desberdinen alde apustu egitea, hala nola Ahobizi eta Belarriprest rola, euskaldun-komunitatearen baitako elkarrekintza pizteko. Nafarroa gizarte hagitz askotarikoa eta zabala dugu, eta guztion erantzukizuna da balio hori indartzea. Are gehiago, joan den astean jakin ondoren ezen, Xabier Erizek eta Carlos Vilchesez eginiko azterlan baten arabera, zeina egin baitzen Eusko Ikaskuntzaren eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuaren arteko hitzarmen baten abaroen, nafar populazioaren zatirik handiena (% 63) "euskararen sustapena-

ren aldekoa edo oso aldekoa dela", eta soilik % 17 dagoela aurka.

Erabaki-proposamena

1.- Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Euskaraldia dinamikarekin, eta Nafarroako Foru Komunitatean euskara erabilia izatearen aldeko sustapen-lanarekiko bere konpromisoa indartzen du.

2.- Nafarroako Parlamentuak euskaraz badakiten eta/edo ulertzen duten herritar guztiei dei egiten die Euskaraldian parte hartzera, halatan eguneroko bizitzan hizkuntza erabilzeko guneak sortzen laguntzeko.

3.- Nafarroako Parlamentuak bertako ordezkari eta langileei dei egiten die Euskaraldia ekimena dela-eta Parlamentuan egitekoak diren jardueretan parte har dezaten, horrela hizkuntzaren erabilera faboratuko duten hizkuntz ohiturak sustaturik.

Iruñean, 2025eko apirilaren 14a

Foru parlamentariak: Eneka Maiz Ulaiar, Mikel Asiain Torres, Carlos Guzmán Pérez

11-25/MOC-00066. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita berma dezan Lizarrako eta Tuterako eskualdeko ospitaleetan erradiologiako mediku espezialistak egonen direla egunero eta etengabe

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko apirilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita berma dezan Lizarrako eta Tuterako eskualdeko ospitaleetan erradiologiako mediku espezialistak egonen direla egunero eta etengabe.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko apirilaren 28an

Lehenengo lehendakarioordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Osasun-arreta ekitatibo eta kalitatezkoa jasotzeko eskubidea oinarrizko eskubidea da, Nafarroako herritar guztiei bermatu behar zaiena, bizilekua, egoera sozioekonomikoa edo ingurune geografikoa edozein dela ere. Printzipio hori osasun-legerian eta osasun-sistema publikoa inspiratzen duten balioetan jasota dago, eta berekin dakar landa-eremu batean edo hiriburutik urrun dagoen eskualde batean bizitzeak ezin duela ekarri, eta ez duela ekarri behar, kalitate txikiagoko arreta ematea edo funtsezko zerbitzuak eskuratzeko zailtasun handiagoak izatea.

Azken hilabeteotan, agerian geratu da erradiologia-espezialistak falta direla (eta hori kezagarria da) Lizarrako García Orcoyen eta Tuterako Reina Sofía eskualde-ospitaleetan; horren ondorioz, pazienteak Iruñera bideratu dira premiazko proba

diagnostiko urgenteak egiteko, hala nola ekografiak, guardiako erradiologorik ez dagoenean.

Lizarrako García Orcoyen ospitalean 6 erradiologok osatzen dute plantilla, eta gaur egun bakarra dago zerbitzuan. Horrek eragina izan du guardien jardueran, eta Iruñera bideratu behar izan dira ekografia urgenteak. Tuterako Reina Sofia Ospitalean ere egoera kritikoa da. 13 medikuko plantilla batetik, gaur egun 6 baino ez daude lanean.

Gabezia horrek kalte handia egiten dio ospitale horien funtzionamenduari, eta, beraz, herritarrei eman beharreko arretari; izan ere, erradiodiagnostiko-zerbitzua zerbitzu zentrala da ospitale batean, kontuan hartuta, OMEren arabera, erabaki medikoen % 80 baino gehiago proba erradiologikoetan oinarritzen direla.

Osasun Departamentuak duela gutxi iragarri du erradiologiako eremu funtzional bakarra sortuko dela Nafarroako Foru Komunitate osorako, Nafarroako Unibertsitate Ospitalean egoitza izango duena, sistemako giza baliabideak eta baliabide teknikoak modu eraginkorragoan koordinatzeko.

Hala ere, gaur egun ez dakigu eredu berri horrek aurreikusten ote duen guardiako erradiologoen presentzia fisiko eta jarraitua Lizarrako eta Tuterako eskualde-ospitaleetan. Zehaztasun-falta horrek ziurgabetasuna eta kezka sortzen ditu erabiltzaileen artean, zeinak beldur baitira zerbitzua zentralizatzeko erreferentziazko ospitaleetako aurrez aurreko arreta murriztea ekarriko ote duen, horrek eragin negatiboa izanen bailuke diagnostiko urgenteen aurrean erantzuteko gaitasunean eta sistemaren ekitatean.

Gure ustez, funtsezkoa da erradiologoen eguneroko presentzia jarraitua bermatzea Lizarrako García Orcoyen eta Tuterako Reina Sofía eskualde-ospitaleetan, osasun-arreta ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzeko, pazienteen alferrikako joan-etorriak saihesteko eta premiazko proba diagnostikoak garaiz eta behar bezala eginen direla bermatzeko. Hori dela eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du:

1. Erradiologiako mediku espezialisten eguneroko presentzia jarraitua berma dezan Lizarrako

eta Tuterako eskualde-ospitaleetan, guardiak beteko direla eta premiazko proba diagnostikoak eginen direla ziurtatuz, beste zentro batzuetara bideratu beharrik gabe.

2. Bi ospitale horietako erradiologia-zerbituetan dauden lanpostu hutsak betetzeko premiazko neurriak ezar ditzan.

3. Erradiologiako Eredu Funtzional bakarraren eredia ebalua dezan eta, kasua bada, berrikeria dezan, eskualdeko ospitaleetako osasun-arretaren kalitatea arriskuan jartzen ez duela eta giza bali-

bideen eta baliabide materialen banaketa ekitati-boa bermatzen duela ziurtatzeko.

4. Nafarroako Parlamentuari sei hilabeteko epean jakinaraz diezaion zer neurri hartu diren eta zer emaitza lortu diren Lizarrako eta Tuterako eskualde-ospitaleetako erradiologia-zerbitzuak hobetzeko.

Iruñean, 2025eko apirilaren 24an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-25/MOC-00067. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen exekuzio eta bideragarritasun integrala berma dezan

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko apirilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen exekuzio eta bideragarritasun integrala berma dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko apirilaren 28an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Nafarroako Gobernua Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen exekuzio eta bideragarritasun integrala bermatzera premia-tzen duen honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Nafarroako Ubidearen azpiegitura obra estratetikoa da Foru Komunitatearen ekonomia-, gizarte- eta lurralde-garapenerako, bai kalitatezko ur-hornidurari dagokionez, bai nekazaritza- eta industria-jarduera bultzatzeari dagokionez, bereziki Erriberan.

Nafarroako Ubidearen bigarren fasea, zeina Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren plan hidrológicoetan eta Nafarroako Gobernuaren eta CANASAREN planetan jasotzen baita, funtsezkoa da proiektu egituratzaile hau osatzeko. Udal, ureztatzaile-elkarte eta eragile ekonomiko eta sozial askok orain dela gutxi aho batez babestu dute fase hori. Lehenbailehen gauzatzeko eskatu dute, eta aurreikusitako 21.522 hektarea guztiak bermatzeko, bai eta etorkizuneko erabiltzaileek prozesuan benetan parte hartzeko ere.

Gauzak horrela, ezinbestekoa da Nafarroako Gobernuak zeregin aktibo eta argitzailea bere gain hartzea, proiektuaren informazio tekniko eta segurtasun juridikoa indartuz. Nafarroako Ubidea ez da soilik ureztatze-kanal bat; Nafarroarako estatu-obra bat da, ura eskuragarri edukitzea bermatzen duena, epe luzearako ondasun komun gisa, Erriberarentzat eta foru-lurralde osoarentzat.

Horregatik, beharrezkoa da Nafarroako Gobernuak publikoki ziurtatzea baliabide hidrikoen nahikotasuna eta proiektuaren bideragarritasun juridikoa, txosten tekniko egiaztagarrietan oinarrituta.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak erabakitzen du:

1. Nafarroako Gobernua premiatzea berma dezan, zalantzarik gabe, Nafarroako Ubidearen Bigarren Fasea osorik eginen dela, bermatuz Erriberako 70.000 biztanlek baino gehiagok kalitatezko ura kontsumitzen ahalko dutela, eta 21.522 hektarea ureztatzen ahalko direla, horri esker aurrera egin ahal izanen baitugu erkidegoaren lurralde-garapen jasangarrian eta Erriberaren garapen ekonomikoan.

2. Nafarroako Gobernuari eskatzea publikoki ziurta dezan, txosten tekniko egiaztagarrien bidez, ltoizko urtegiko ur-baliabideak nahikoak direla eta proiektua teknikoki eta juridikoki bideragarria dela, egungo eta etorkizuneko erabiltzaileen konfiantza indartuz.

3. Nafarroako Ubidea Nafarroa osorako estrategikoa eta egituratzailea dela berrestea, eta haren garapena irizpide tekniko, sozial eta interes orokorreko irizpideekin amaitzeko beharra berrestea.

Iruñean, 2025eko apirilaren 23an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-25/MOC-00068. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita nekazaritzako elikagaien plan estrategikoa taxutu dezan nekazaritzako organizazioekin eta sektoreko beste eragileekin lankidetzan

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko apirilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita nekazaritzako elikagaien plan estrategikoa taxutu dezan nekazaritzako organizazioekin eta sektoreko beste eragileekin lankidetzan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko apirilaren 28an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztzen du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena

Nafarroako nekazaritzako elikagaien sektorea Nafarroako Foru Komunitatearen ekonomia-, gizarte- eta lurralde-garapenaren funtsezko zutabeetako bat da. Sektore horrek, ekoizpen primario-tik hasi eta elikagaien eraldaketa eta merkaturatzeraino, Nafarroako Foru Komunitateko Barne Produktu Gordinaren (BPG) zati handi bat ematen du, zuzeneko eta zeharkako enplegua sortzen du, eta funtsezkoa da landa-inguruneari eusteko eta lurraldea egituratzeko.

Nafarroak nekazaritzako elikagaien sare dinamikoa du, kalitate handiko produktuak dituena, eta horietako asko kalitate bereiziko figurek babesten dituzte, hala nola jatorri-deiturek edo adierazpen geografiko babestuek. Hala ere, indarguneak gorabehera, sektoreak erronka garrantzitsuei egin behar die aurre, erakunde publikoen erantzun estrategikoa eta koordinatua behar dutenak, inplikaturako eragileekin lankidetzan.

Ildo horretan, Nafarroako Nekazari eta Abeltzainen Batasunak (UAGN) "Nafarroa, UAGNk nahi duen marka" dokumentua prestatu du. Dokumentu horretan, neurri zehatzak proposatzen dira nekazaritzako elikagaien sektorearen posizioa indartzeko, haren ekonomia- eta ingurumen-jasangarritasuna hobetzeko eta haren etorkizuna bermatzeko, gero eta konplexuagoa den ingurune batean. Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi

Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki-proposamen hau aurkezten du:

1. Nekazaritza-erakundeekin eta sektoreko beste eragile batzuekin lankidetzan, Nekazaritzako Elikagaien Plan Estrategiko bat egitea, honako hauek jasoko dituena:

a) Nafarroako nekazaritza eta abeltzaintzako sektorearen garapena eta berrikuntza bultzatzeko neurriak.

b) Nekazaritzako enpresen bideragarritasun ekonomikoa hobetzeko ekintzak.

c) Belaunaldi-erreleboa eta gazteak sektorean sartzea sustatzeko estrategiak.

2. Komunikazio- eta sentsibilizazio-estrategia bat taxutzea, nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerari

balioa emateko, Nafarroako gizartearentzat duen garrantzia nabarmenduta.

3. Hezkuntza-plan bat ezartzea, Hezkuntza Departamentuarekin koordinatuta, lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleentzat, nekazaritzako elikagaien kateari eta elikadura-subiranotasunaren garrantziari buruzko unitate didaktikoak taxutzea jasoko duena. 4. Nekazaritzako Elikagaien Plan Estrategikoan ezarritako ekintzen aldizkako jarraipena eta ebaluazioa egitea, eraginkortasuna eta sektorearen beharretara egokitzeko gaitasuna ziurtatuz.

Iruñean, 2025eko apirilaren 24an

Eleduna: Ramón Alzórriz Goñi

11-25/MOC-00069. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Espainiako Gobernua premia dezan Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren 245. eta 269. artikulua aldatzea sustatzera, etxebizitzaren eta higiezinaren okupazio-kasuetako zigorrak gogortzeko

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko apirilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Espainiako Gobernua premia dezan Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren 245. eta 269. artikulua aldatzea sustatzera, etxebizitzaren eta higiezinaren okupazio-kasuetako zigorrak gogortzeko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko apirilaren 28an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioen eledun Javier García Jiménez jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, maiatzaren 8ko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Agerikoa eta nabarmena da bai Nafarroak eta bai Espainia osoak egoera konplexua eta okerra bizi dutela etxebizitza eskuratzeari dagokionez. Eta, zalantzarik gabe, egoera horretara eraman gaituzten askotariko alderdietako bat okupazioa da, segurtasunaren, elkarbizitzaren eta jabetza eskubidearen aurkakoa baita.

Idealista atariaren arabera, Espainian webgune horretan iragarritako etxebizitzaren % 2,6 okupatuta daude, 20.464 etxebizitza guztira. Eta Instituto de Estudios Económicos erakundeak duela gutxi zabalduko txosten batean jasotzen da legez kanpoko okupazioagatik salaketek % 34,5 egin zutela gora 2018 eta 2024 artean, eta okupa-

tutako etxeak utzarazteko epeak % 50 areagotu direla denbora-tarte berean.

Espanian 80.000 higiezin daude okupatuta, eta beste 25.000 maizterrek okupatuta, eta eta gure herrialdea atzera egiten ari da jabetza pribatuaren babesari buruzko rankinean –aztertutako ELGAko 37 herrialdeetatik 22. postuan dago–.

Azken urteotan sustatutako politikak jabeak babesgabe utzi dituzte legez kanpoko okupazioaren gorakadaren aurrean; okupazioa ez da munta txikiko gaia, jabetza pribatua eta segurtasun juridikoa kaltetzen baititu. Horrek eskaintza murriztea dakar, sortzen duen ziurgabetasunagatik, eta, beraz, pieza bakoitzeko eskatzaile kopurua handitzen du eta etxebizitza eskuratzeko zailtzen du.

2023an onartutako Etxebizitzaren Legeak, irtenbideak eman eta etxebizitza-eskaintza sustatzetik urrun, oztupoak jartzen dizkio alokairuari, babesik gabe uzten ditu jabeak, eta okupazioari mesede egiten dio. Lehenengo urtean, lege honek Kataluniako alokairuen laurdena suntsitu du, Katalunia izan baita arau hori aplikatu duen lehen erkidegoa. Egungo legeriarekin, bereak ez diren etxebizitzak usurpatzen dituen –Zigor Kodean jasota dagoen delitua da hori– babesten da. Segurtasun juridikoa funtsezkoa da konfiantza sortzeko eta egonkortasuna eta bideragarritasuna erakusteko, eta hori legez kanpoko okupazioaren guztiz aurkakoa da.

Administrazioak ezin ditu alde batera utzi etxebizitza eskuratzeko dauden zailtasunak eta legez kanpoko okupazioaren arazoa; aldiz, bermeak eskaintzen dituzten politika publikoak sustatu behar ditu, etxebizitza ondasun oso garestia izan dadin saihesteko eta higiezin okupazioa eta maizterren okupazioa galarazteko. Edonoren etxebizitza erasotua eta inbaditua izatea kalte bat da, erakunde publiko guztiei erantzunen bat eskatzen diena.

Egoera horren aurrean, bada garaia Nafarroako Foru Komunitateko erakunde guztiek, Parlamentu hau barne, urrats bat aurrera egin eta jabeak babes ditzaten, okupazioaren aurka egiteko tresnak emanda, horrela maizterrei ere babes emanen baitzaie. Epailiek eta poliziak ere arazo honi aurre egiteko tresnak ere izan behar dituzte. Segurtasun juridikoaren bermeak, zalantzarik gabe, etxebizitzaren eskaintza handitzen eta, horrekin batera, prezioa jaisten lagunduko du.

Nafarroan, okupatutako etxeak 24-48 orduko epean hustu beharko lirateke, delitu horregatik zigorrek gogortu beharko lirateke eta debekatu beharko litzateke etxebizitza bat legez kanpo okupatzen dutenek bertan erroldatu ahal izatea. Hala, Nafarroan eta Espainia osoan areagotzen

ari den arazo hau normalizatzea eta azkenean paradigma bihurtzea galaraziko litzateke.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak honako erabaki-proposamen hau onesten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Espainiako Gobernua premia dezan Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren 245. eta 269. artikulua aldatzea sustatzera, etxebizitzaren eta higiezin okupazio-kasuetako zigorrek gogortzeko.

2. Espainiako Gobernua premia dezan Jabetza Horizontalari buruzko 49/1960 Legea aldatzea sustatzera, jabeakideen erkidegoak pertsona juridiko gisa gaituak izan daitezen, etxebizitzak berreskuratzeko prozesuak hasi ahal izateko.

3. Espainiako Gobernua premia dezan Toki Araubidearen Oinarri buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Foru Legearen 18. artikuluko 4. apartatuari beste apartatu bat gehitu diezaion, legez kanpoko okupatzaileak udal erroldan inskribatu daitezen ekiditeko. Eska diezaion inskripzio hori baliogabea izatea eta haren bizilekuari buruzko frogak ez izatea, eta inongo eskubiderik ez ematea. Horretarako, udalek erroldatik at utziko dituzte inskripzio horiek, ofizios edo jabe edo edukitzaile legitimoak eskatuta, horien berri izan bezain laster.

4. Espainiako Gobernua premia dezan lege aldaketak proposa ditzan jabe txikiak babesteko eta okupazioak dakarren babesgabetasunarekin amaitzeko.

5. Diputatuen Kongresuko Talde Sozialista premiatzea etxebizitza edo higiezin baten jabe edo edukitzaile legitimo diren pertsona fisiko edo juridikoen babesa hobetzera –etxebizitzaren edo haren zati baten jabetza osoa berreskuratzeko, haien baimenik gabe kendu bazaie– bideratutako legegintzako ekimenen izapidetzea ahalbidetu eta ekimen horiek babestu ditzan. Halaber, babes dezan Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek okupatutako etxebizitzak hustu ahal izatea agerikeriko delitu baten kasuan, edo, halakorik ez bada, 24 orduko epean.

6. Nafarroako Gobernua premiatzea zerbitzu berriazko bat sor dezan Gobernuak eta tokiko entitateek okupazioari aurre egiteko abian jartzen dituzten ekintzak koordinatzeko.

7. Baliabide gehiago ematea epaile eta polizia okupazioaren aurka borrokatu ahal izateko.

Iruñean, 2025eko apirilaren 24an

Eleduna: Javier García Jiménez

11-25/DEC-00015. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Ijitoen Herriaren Nazioarteko Egunarekin

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2025eko apirilaren 28an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak uste du Nafarroako ijitoen erkidegoari zuzendutako politika orokorrak eta berariazkoak gauzatu behar direla, Europako erakundearen eta Ijitoen Berdintasun, Inklusio eta Parte-hartzerako 2021-2030 Estrategia Nazionalaren gomendioei jarraituz. Lehentasunezko helburu gisa hartu behar da osasunaren, hezkuntzaren, enpleguaren eta etxebizitzaren arloetan eragina duten desberdinkeriak murriztea, arreta berezia jarrita haur-gazteengan eta emakume ijitoengan.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du inklusio politiken osagarri abian jarri behar direla kultur arteko elkarbizitzara, ijitoen aurkako jarreraren aurkako borrokara, ijitoen herriaren parte-hartzea sustatzera eta haien historia eta kulturaren aitor-

tza sozialera zuzendutako politikak, Europako erakundearen eta Ijitoen Berdintasun, Inklusio eta Parte-hartzerako 2021-2030 Estrategia Nazionalaren gomendioei jarraituz.

3. Nafarroako Parlamentuaren ustez, behar adina baliabidez hornitu behar dira ijitoenganako planak eta estrategiak, beharrezkoa den eta nahikoa den intentsitatearekin eta denbora-aldetiko jarraitutasunarekin ezarri ahal izan daitezen; halaber, plan eta estrategia horiek ijitoen erkidegoaren eta haien elkarteen parte-hartzea erraztu behar dute.

4. Nafarroako Parlamentuak herritar guztiei dei egiten die Ijitoen Kulturaren Hilabetearekin lotuta antolatzen diren ekitaldi guztietan parte hartzera".

Iruñean, 2025eko apirilaren 28an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

F saila:
GALDERAK

11-25/PES-00170. Galdera, Kuo enpresaren lan-irregulartasunei buruzkoa*MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko apirilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, Kuo enpresaren lan-irregulartasunei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko apirilaren 28an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Barneko kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Kuo enpresari buruzko kexak jaso dira, lan-arloan ustez egindako irregulartasunak direla-eta. Enpresa hori Nafarroako Ospitale Unibertsitarioren segurtasun-zerbitzuaren esleipen-hartzailea da. Informazio horren arabera, enpresa jardunbide engainagarrien bidez ari da kontratatzen segurtasun-langileak, lanpostuaren benetako baldintzei buruzko informazio argirik eman gabe eta eginkizunak betetzeko eman beharreko arauzko materiala eman gabe. Jarduketa horiek lan-arloan eta segurtasun pribatuaren arloan indarrean dagoen araudia urratzea ekar lezakete, eta, gainera, eragin kaltegarria izan lezakete bereziki sentikorra den ingurune batean, ospitalekoan, emandako zerbitzuaren kalitateari begira.

Horrenbestez, hauex jakin nahi dut:

Barne Departamentuak ba al du Kuo enpresaren jardunbide horien berri? Hala bada, zer gainbegiratzeko edo ikuskapen-jarduera egin dira, eta zer neurri hartu edo aurreikusten dira laneko eta segurtasun pribatuko araudia zorrotz betetzen dela bermatzeko, bai eta kontratatutako langileen eskubideak eta ospitale-esparruaren segurtasuna babesteko ere?

Iruñean, 2025eko apirilaren 15ean

Foru parlamentaria: María Teresa Nosti Izquierdo

11-25/PES-00171. Galdera, tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonaldeetako zehapen-araubideari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko apirilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonaldeetako zehapen-araubideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko apirilaren 28an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Nafarroako 21 udalerritan tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonalde deklaratu direnez, eta ondoren udalerritan horietako bakoitzerako neurri espezifikoekin planak onetsi direnez, honako galdera hauek egiten ditut:

– Nola aurreikusten du Nafarroako Gobernuak tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonalde deklaratuaren udalerrietan indarrean jarriko diren neurriak betetzen direla zaintzea eta nola detektatu nahi ditu gertatzen diren arau-hausteak edo ez-betetzeak?

– Zer zehapen-araubide aplikatuko da tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonalde deklaratuaren udalerrietan aplikatutako neurrien arau-hausteen kasuan?

– Zein izanen da arau-hauste horien kasuan jarraitu beharreko prozedura?

– Zer zehapen aurreikusten dira arau-hauste horietarako, bereziki ezarritako alokairu-errentaren prezioaren muga errespetatzen ez den kasuetarako?

– Zein izanen da zehapen-organoa prozedura horietan?

Iruñean, 2025eko apirilaren 18an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-25/PES-00172. Galdera, Etxebizitza Kolaboratiboen Programari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko apirilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, Etxebizitza Kolaboratiboen Programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko apirilaren 28an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

2024an, Nafarroako Gobernuak etxebizitza kolaboratiboen programa iragarri zuen Gobernu Irekiaren webgunean. Programa horren helburua zen profesionalen, herritarren, gizarte zibileko erakundeek eta etxebizitza kolaboratiboari buruzko ekimenen arteko ikaskuntza eta trukea sustatzea, etxebizitza eskuratzeko formula berri gisa, haien eskuragarritasun iraunkorra bermatzeko.

Horren berri emateko, hainbat lurralde-saio egin ziren, zehazki 2024ko ekainaren 17an, 18an eta 19an, Nafarroako zenbait udalerritan. Hori guztia ikusita, honako hau jakin nahi dut:

– Zertan da gaur egun Etxebizitza Kolaboratiboen Programa?

– Zer garatu da joan den ekainean egin ziren berri emateko lurralde-saio haietatik orain arte?

– Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak berri emateko lurralde-hedapeneko saio horiei buruz?

– Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen darabil Etxebizitza Kolaboratiboen Programaren garapenari eta denborari buruz?

Iruñean, 2025eko apirilaren 19an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-24/PECP-00001. Deialdia, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko ikus-entzunezko komunikazioko teknikaria izateko lanpostu bat, euskarako C1 hizkuntza-eskakizunarekin, funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa

Aldi baterako kontratazioetarako zerrenda

2025eko apirilaren 28an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak honako erabaki har hartu zuen, besteak beste:

Behin bukatua Nafarroako Parlamentuko ikus-entzunezko komunikazioko teknikari-lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia –lanpostuak euskarako C1 hizkuntza-eskakizuna du, eta funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa da–, Zerbitzu Orokorretako buruak ikus-entzunezko komunikazioko teknikaria aldi baterako kontratazko izangaiaren zerrenda aurkeztu du (lanpostuak euskarako C1 hizkuntza-eskakizuna du, eta zerrenda deialdiko 11. oinarrian ezarritakoaren arabera taxutu da). Deialdia 2024ko martxoaren 18ko 42. NPAOn eta 2024ko martxoaren 18ko 58. NAOOn eman zen argitara.

Aurkezturiko dokumentazioa ikusita, eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 5. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregela-

menduko 42. artikuluan esleitutako eskumenen arabera, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Onestea Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko ikus-entzunezko komunikazioko teknikaria aldi baterako kontratazko izangaiaren zerrenda, zeina honekin batera baitoa eta Nafarroako Parlamentuko ikus-entzunezko komunikazioko teknikari-lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialditik heldu baita. Lanpostuak euskarako C1 hizkuntza-eskakizuna du, eta funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa da (zerrenda deialdiko 11. oinarrian ezarritakoaren arabera taxutu da).

2. Zerrenda Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Parlamentuaren webgunean argitaratu dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko apirilaren 28an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko aldi baterako kontrataziorako zerrendak

Ikus-entzunezko komunikazioko teknikaria, C1 mailako euskara

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko ikus-entzunezko komunikazioko teknikaria izateko lanpostu bat, euskarako C1 hizkuntza-eskakizuna duena, funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko (2024ko martxoaren 18ko 42. NPAO eta 2024ko martxoaren 18ko 58. NAO)

Deialdiaren 11. oinarrian ezarritakoarekin bat, aldi baterako kontrataziorako honako zerrenda hau osatu da:

Hautaprobaren bat gainditu duten izangaiaren zerrenda, lortutako guztizko puntuazioaren arabera ordenatuta:

| Izena | Hasierako posizioa | Deitzeko hurrenkera |
|-----------------------|--------------------|---------------------|
| EPALZA ATXA, MAIALEN | 1 | 1 |
| OSÁCAR AIZPÚN, RAQUEL | 2 | 2 |

11-23/ELC-00003. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusirako eta Tokiko Kontseiluetarako izendatu beharreko kidea hautatzea

2025eko apirilaren 28an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legeak ezartzen duenez, 4. artikuluko 1. idatzatik j) letran hain zuzen, Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia osatuko dute, besteak beste, Nafarroako Hezkuntza Batzordeko bi kidek, hark hautatuak

2023ko azaroaren 15ean eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak erabaki zuen Nafarroako Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiko kide izendatzea María Inmaculada Jurío Macaya andrea eta Eneka Maiz Ulaiar andrea.

Parlamentuaren erregistroan apirilaren 22an sartutako idazki baten bidez, Jurío andreak uko egin zion bere foru parlamentari izaerari, eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak jasotzat eman zuen haren uko-egitea data horretan bertan eginiko bilkuran. Hori horrela, aipatutako foru legearen 6. artikuluen 3. apartatuari jarraiki, Parlamentuak beste pertsona bat izendatu behar du Nafarroako Eskola Kontseiluan ordezkaritza gisa jardun dadin.

Parlamentuko Erregelamenduan ez denez jasotzen aukeraketa hori egiteko prozedurari buruzko aurreikuspenik, Mahaiari dagokio, Erregelamenduaren 42.1.9. artikuluan ezartzen dena-

ren arabera, hautespen hori erregulatzeko arauak onestea, Eledunen Batzarrarekin adostuta. Horrenbestez, honako hau ERABAKITZEN DA:

Lehenengoa.- Hasiera ematea Nafarroako Parlamentuak izendatu beharreko Nafarroako Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusirako kide bat hautatzeko prozesuari.

Bigarrena.- Hautaketa hori egiteko arauak onestea. Hona hemen arauak:

“1. Hezkuntza Batzordeko kide diren foru parlamentarien artean eginen da hautaketa, txartel bidezko bozketa isilpekoaren bidez.

2. Ordezkaritza hautaketarako, batzordeko kide den foru parlamentari bakoitzak izen bakar bat jartzen ahalko du txartelean.

3. Boto gehien lortzen dituen hautagaia izanen da hautatua.

4. Berdinketa gertatuz gero, bata bestearen jarraian bozketak egiten jarraituko dute berdinketa hautsi arte.

5. Hautagaiak aurkezteko idazkia Legebiltzarreko Mahaiari zuzenduko zaio, 2025eko maiatzaren 13ko 17:30ak baino lehen”.

Hirugarrena.- Agintzea argitara dadila erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2025eko apirilaren 28an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

11-25/ELCR-00001. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseilurako aukeratu behar dituen bost kideak hautatzea

2025eko apirilaren 28an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2025eko apirilaren 16ko data duen idazki baten bidez, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Parlamentuari eskatu dio hautespen-prozesu bat abiaraz dezala, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluaren kide izateko aukeratutako pertsonak izendatzeko.

Uztailaren 2ko 15/2008 Foru Legeak, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzkoak, 9.3. a) artikuluan xedatzen du Nafarroako Parlamentuak gehiengo osoz aukeratuko dituela Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko bost kide.

Parlamentuko Erregelamenduan ez denez jasotzen aukeraketa hori egiteko prozedurari buruzko aurreikuspenik, Mahaiari dagokio, Erregelamenduaren 42.1.9. artikuluan ezartzen denaren arabera, hautespen hori erregulatzeko arauak onestea, Eledunen Batzarrarekin adostuta. Horrenbestez, honako hau ERABAKITZEN DA:

Lehenengoa.- Hasiara ematea Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako aukeratu beharreko bost kideak hautatzeko prozesuari.

Bigarrena.- Aukeraketa hori egiteko arauak onestea. Hona hemen arauok:

1. Nafarroako Parlamentuak bost pertsona hautatuko ditu, bera ordezkatzuz Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko kide izan daitezen, uztailaren 2ko 15/2008 Foru Legean xedatutakoari jarraituz.

2. Zenbat postu bete behar diren, talde parlamentario bakoitzak hainbeste hautagai aurkezten ahalko ditu, aipatutako foru legean ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten pertsonen artetik.

3. Hautagaitzak aurkezteko, Parlamentuko Mahaiari zuzendutako idazkiak aurkeztu beharko dituzte talde parlamentarioek, eta proposatutako hautagaien adostasuna ere jaso beharko da idaz-

kiotan. Aztertze aldera ea proposatutako hautagaiak foru lege horren 14. artikuluan ezartzen den bateraezintasun-egoeraren batean dauden, beharrezkoa izanen da proposamen-idazkiekin batera aurkeztea hautagaien froga edo adierazpena, bateraezintasun-egoera horietan ez egoteari buruzkoa.

4. Talde parlamentarioek Gizarte Kontseiluaren kide izateko hautagaitzak aurkezteko epea 2025eko maiatzaren 27ko 17:30ean bukatuko da.

5. Epea bukatuta, Mahaiak kalifikatuko du ea proposatutako hautagaiak betetzen dituzten eskatzen diren baldintzak; eta jarraian, kasua bada, hautagaiak aldarrikatuko ditu.

6. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko bost kide horien hautespena Parlamentuaren Osoko Bilkuran egingen da, isilpeko bozketaren bidez.

7. Bozketa txartelen bidez egingen da, eta bete beharreko postuak bezainbeste izen jartzen ahalko ditu txartelean parlamentari bakoitzak.

8. Mahaiak boto-zenbaketa egingen du, eta boto gehien lortu dituzten bost hautagaiak aldarrikatuko ditu. Hautagai bakoitzak gutxienez ere lortu beharko du Legebiltzarraren kideen botoen gehiengo osoa.

9. Proposamenean eragina izaten ahal duten balizko berdinketak ebazteko, boto-kopuru bera lortu duten hautagaitzetarako beste bozketa bat egingen da. Berdinketak bere horretan baldin badira, boto kopuru bera lortu duten hautagaitzetarako bozketak egingen dira bata bestearen jarraian, harik eta berdinketa hautsi arte.

10. Lehenbiziko bozketan ez badira bost postuak betetzen 8. arauan zehaztutako baldintzetan, beste bozketa batzuk egingen dira bata bestearen jarraian, bete gabe gelditu diren postuetarako. Ondorengo bozketa horietan, bete beharreko postuak bezainbeste hautagai jartzen ahalko dira txarteletan. Lehendakaritzak bozketak eteten ahalko ditu, bidezko epea eten ere, uneko ingurabarrak direla-eta hala jokatzea komeni bada.

Elkarren segidako hiru bozketa egin eta hautagai guztiak edo baten bat hautatu gabe gelditzen badira, bukatutzat emanen da hautespen-prozesua, eta beste prozesu bat abiaraziko da, aukeratu gabe gelditu diren postuetarako soilik.

Hirugarrena.- Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

Iruñean, 2025eko apirilaren 28an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate
